

4 Bizitza politikoa Lazkaon Antzinako Erregimenean

Susana Truchuelo

1

Lazkao Areriako alkatetza nagusian: eremu instituzionala

1. Lazkao Areriako alkatetza nagusian: eremu instituzionala

Lazkaoko historiak, Antzinako Erregimenean, Areriako alkatetza nagusiarekin harreman estua du. Alkatetza erakunde politikoa zen, eta bere barnean hainbat kontzeju edo herri biltzen ziren. Bertako pertsonaiarik garrantzitsuena alkate nagusia zen, eta honen lana lurraldeko zuzenbidea kudeatzea zen. 1461. urtean, Areriako lurralde-erakunde honetan, *kolazio* edo *unibertsitate* hauek biltzen ziren: Lazkao, Olaberria, Arriaran, Ezkioko zati bat, Itsaso eta Gabiria; beranduago Zumarraga ere sartu zen.

Aurreko atalean esan dugun bezala, 1461eko martxoaren 12an Enrique IV.a erregeak, Arerian zeuden herriei alkatetza-makila ematea onartu zuen. Une horretatik aurrera, alkatetza osatzen zuten herriek erakunde bakarra osatuko zuten eta, honen ondorioz, eskumen hauek izango zituzten: herri bakoitzak urtero bere alkate nagusia aukeratzeko aginpidea, alkatetzaren gastu arruntak ordaintzekoa eta bere zigilu propioa izatekoa. Azken batean, herri hauei autogobernua bideratzen zuen Donostiako Forua eman zitzaien.

Baina Forua ematean, barruko herrien artean arazo berriak sortu ziren. Hau zen arazoaren muina: Areria barruko zenbait herrik, Lazkao artean zela, botere handiagoa eskatzen zuten. Arazo hauek ebazteko, sei herriek zuzenbide-batxiler bi izendatu zituzten, Martín Fernández de Paternina eta Juan Pérez de Vicuña. Hauek epai baten bidez konpondu zuten barne-botere banaketaren arazoa. Epai arbitral hau, 1463. urteko maiatzaren 24an



emana, Aleriako gobernurako sei udalbatzek sinatutako akordioaren -“Carta Partida” izenaz ezagutua- barruan sartu zen. Gainera, egun berean Aleriako alkatetza nagusiko udal ordenantzak idatzi ziren, alkatetzaren gobernurako ildoak arautzen zituztenak.

Ordenantzak eta Karta Partidak Aleriako alkatetza nagusiaren gobernu eta antolakuntza politikoaren oinarriak ezartzen dituzte, Antzinako Erregimen osoan zehar iraun zutenak. Horregatik, hauen ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu.



Aleriako alkatetza nagusiak makila izateko eskumena Errege katolikoek berretsi zuten 1476.ean. Zehazkiago, Enrique IV.aren gutunak honela zioen: “Quiero e es mi merçed que el dicho conçejo de la alcaldía e omes buenos e vezinos e moradores de él, de aquí adelante e para syempre jamás, pongan e puedan poner en cada un anno el día de Sant Miguel de setiembre, o en otro día qual ellos quisieren, alcalde o alcaldes cadanneros, los quales tengan mero e misto ymperio e jurisdicción alta e vaxa, çivil e criminal, e que por ellos o por qualquier de ellos sean todos los vezinos e moradores que agora son o serán de aquí adelante de la dicha alcaldía e sus bienes e pleitos e causas qualesquier, librados e juzgados”. Eskumen honek Lazkaoko historian garai berria abiarazi zuen: biztanleak ez zeuden Jaunaren zaindartzaren zuzenaren pean.

- **Alkatetzaren Ordenantzak**

Ordenantzak 1462. urteko maiatzaren 24an idatzi ziren. Ordenantzok, alkatetza nagusiko alkatetzaren alderdi nagusiak eta kontzeju bakoitzari zegokion arazoak arautzen zituzten. M^a Rosa Ayerbek Ordenantza hauen edukien azterketa sistematikoa egin du.

Alkatetza hiru partidu edo tribunal zituen, eta hauetako bakoitzak bere auditorioa zuen. Hala ere, ez zen zehazten partidu bakoitzean zenbat lagun eta zein herri biltzen ziren. Alkatetzako agintari nagusia *alkate nagusia* zen. Alkatea, ezarritako hurrenkeraren arabera zegokion herriko biztanleek izendatzen zuten irailaren 29an, eta bere partiduan aritzen zen. Hala ere, beste bi *alkate arrunt* zeuden, bakoitza partidu batekoa; hauek ere, txanda

zegokion herriko biztanleek izendatzen zituzten, San Migel egunean. Alkate arrunt hauek alkate nagusiaren aurrean beren lana era egokian egingo zutela zin egin behar zuten.

Geroagoko dokumentazioari esker badakigu Lazkaok eta Olaberriak partidu bat osatzen zutela, eta beren alkatea sei urtetik bostetan izendatzen zutela. Alkate horrek Lazkao eta Olaberrian agintzen zuen. Dokumentazio horretatik ere ondoriozta dezakegu, bigarren partidu baten barruan Gabiria, Itsaso, Ezkio eta Arriaran zeudela. Hirugarren partidua, Zumarragak osatzen zuen -garai hartan Arerian sartzeko ahaleginetan ari zena-.

Alkateen zeregin nagusiak hauek ziren: zuzenbidea administratzea, kontzejuaren onura bilatzea eta Ordenantzak betearaztea. Azken batean, alkateek, bai alkatetzan, bai kontzeju bakoitzean, gobernua gidatzen zuten. Alkate nagusiaren eskumenean gelditzen ziren kasuak hauek ziren:

- Bere partiduan gertatzen ziren gertakari kriminal edo zibilen, eta alkatetzan gertatzen ziren heriotza-zigor kasuen berri izateko agintea zuen.

- Gerrarako dei guztietan kapitaina zen. Alkatea izendatu zuen kontzejuak Areriako bandera berarekin eraman behar zuen, konpainia militar baten partaide bazen.

- Alkateak, bere kontzejuko ofizialekin batera, zenbakizko eskribautza bat libre gelditzen zen bakoitzean eskribau berria izendatzeko boterea zuen.

- Alkate nagusiak eta bere kontzejuko ofizialek, Gipuzkoako Batzar Nagusietan edo Partikularretan Areria ordezkatu zuen batzarretako prokuradorea izendatzen zuten. Alkate nagusia batzarretara joan zitekeen, bere burua batzarkide izendatzen bazuen.

- Areria osatzen zuten kontzejuen ordezkari-bileretarako deiak egiten zituen, honela guztientzat komunak ziren gaiak eztabaidatu ahal izateko.

Horrezaz gain, alkatea aukeratzea zegokion herriari, Areriako ikurrak ziren zigilua eta kontzejuko kutxa gordetzea zegokion. Era berean, alkatetzako gainerako ofizialak, eskribau fidela, kontzejuko fidela eta lehen aipatu dugun batzarretarako prokuradorea aukera zitzaketen.

Ordenantzek ez dituzte gai politikoak soilik arautzen; bestelako gaiak ere arautzen dituzte, hala nola, ordena publikoaren ingurukoak, jabegoaren babesa... Ordenantzetako batek joko zuen hizpide:

“[...] por quanto a causa que en el concejo ha avido personas que han tenido dados mayores e tableros e ynstrumentos de juego y dan todo aquello a los jugadores, de que se desçienden muchos ynconvenientes y males, renegamientos, blasfemias, ynjurias personales, mucha rina e ruydo [...], ordenamos que el alcalde en cuya jurisdicción esto aconteçiere proçeda conforme a derecho, e al tienpo que oviere de resçivir la vara jure de lo asy fazer e guardar”.

Ordenantzek ere beste ofizialen eskumenak zehazten zituzten. Auditorio bakoitzean alkatearen esanak betearazten zituen *epaimahaikide* bat zegoen. Hauek ziren epaimahai honen zereginetako batzuk: gaizkileak salatzea eta kondenatutako presoak zaintzea. Bestalde, *fidelak* -agian kontzeju bakoitzeko bat- herritarren hornikuntzaz, pisuak eta neurriak egokiak izateaz, eta produktuak kontzejuak tasatutako prezioan eta ez goragoko batean saltzen zirela kontrolatzeaz arduratzen ziren.

Benetako arazo korapilatsua Arieriako biztanleen auzogastuak banatzea izan zen. Auzo-gastu hauek honako hauek izan ohi ziren: batetik, alkate arruntaren, eskribauaren, batzar kidearen, kapitainaren eta abarren soldatak; eta bestetik, mezularien dietak.

Gastuen banaketa edo banaketak egiteaz arduratuko zirenen kopurua zehazten zuten Ordenantzek. Are gehiago, alkate nagusia, eskribau fidela, batzarretako prokuradorea eta hartzaile fidela -banatutako dirua hartzearen arduradunaberaien kontzejuan bilduko ziren. Noski, Azeria osatzen zuten beste herrietako ordezkariak ere bertan biltzen ziren, baina hori bai, bi herri bakoitzeko, Ezkio, Olaberria eta Arriaran herriak izan ezik. Hauek ordezkari bana zuten. Beraz, bilera bakoitzean hamabost pertsona baino gehiago ezin zirenez bildu, Ordenantzen aurretik egiten ziren biltzar jendetsu eta gatatzakatsua sahiesten zituzten.

Gastuaren barne-banaketa, alkate nagusia izendatzean herri bakoitzak izandako parte-hartzeari zegokion neurrikoa zen. Beraz, Arieriako agintari garrantzitsuena gehiagotan aukeratzen zutenek, gehiago ordaintzen zuten.

Ordenantza hauen beste elementu garrantzitsua hau zen: Zumarraga Arierian onartua izan zenean, ordezkaria bidal dezakeen, banaketetan parte har zezan. Beraz, nahiz eta artean herri hau Urretxuko hiribilduaren barruan egon, ez zegoen inolako zalantzarik Arieriako alkatetza nagusian parte hartuko zuela.

- **Karta Partida**

Lazkaoko, Olaberriako, Arriaraneko, Gabiriako, Itsasoko eta Ezkioko ordezkariak sinatutako konpromisozko idazkia da Karta Partida hau. Bertan herri hauen arteko adiskidetasuna berrezartzen da, ordura arte Ezkio, Gabiria eta Itsasoren aurka baitzeuden Lazkao eta Olaberria.

Hika-mika Lazkaok Arieriaren barruan gainerako herriek baino botere handiagoa nahi zuelako hasi zen.

Hau zen Lazkaoren eskaera: audientzia, auditorioa eta alkatetza nagusiaren egoitza Lazkaon bertan egotea, ordura arte egon zen lekuan; izan ere, Lazkao jaunek Areriako makila bertako ondarearen parte izango balitz bezala gorde zuten. Are gehiago, Lazkaok alkate nagusia izenda-

tzeko eskubidea aldarrikatzen zuten, esaten baitzuen Enrique IV.ak bere pribilegioak Lazkaori eman zizkiola eta ez beste edozein kontzejuri. Gainera, Lazkaok ez zuen ordaindu nahi Ezkiok, Gabiriak eta Itsasok pribilegioa eskuratzerakoan egindako gastua.



Korta partidaren amaieran, 1515 eta 1556 artean Areriako alkate nagusi izandakoen zerrenda agertzen da. Lazkaokoak hurrenez hurren, Juan Arza de Lazcano (1522 eta 1536), Juan García de Apalategui (1527), Andrés Aguirre (1541), Miguel Arza (1546) eta Martín Arza (1555) izan ziren. Miguel de Arramendia (1569), Juan de Iztueta (1602), Pedro de Izaguirre (1606), Felipe de Ercilla (1630), Pedro de Chinchurreta (1644), Nicolás de Zufiria (1653) eta Juan de Chinchurreta (1661) ere izan ziren alkate nagusi.

Azkenik, epaileek boterea herrien artean gehiago banatzea erabaki zuten. Epaileek iritzi zuten pribilegioa alkatetza osorako zela, eta horregatik Areriako kontzeju bakarrean biltzen ziren herriek parte hartu behar zutela herri horien gobernuan.



Boterea banatzerakoan, epaileek taldetan banatu zuten alkatetza: lehenengo taldean, Gabiria, Itsaso eta Ezkioko zati bat; bigarren taldean, Lazkao eta Olaberria; eta hirugarren taldean, Arriaran. Lehenengo partidukoek alkatea lehenengo bi urteetan izendatuko zuten, Lazkaok eta Olaberriak hirugarren urtean izendatuko zuten, eta azkenak, hau da, Arriaranek, zazpi urtero izendatuko zuen alkate nagusia. Hau zen 42 urtetan zehar erabili beharko zuten aukeratzeko sistema. Alkate nagusia aukeratzeko hurrenkera hau, auditorioaren egoitzaren eta Areriako gastuen ordainketetan ere errespetatu beharko zuten. Hala ere, Karta Partidak ez zuen zehazten zein izango zen herri bakoitzaren barne-banaketa.

Beraz, garbi gelditzen da Lazkaoren aurka zeudenek beren irizpideak ezartzea lortu zutela. Honenbestez, Lazkaok alkatetza nagusiaren gobernu denbora batez eramango zuen ordutik aurrera, ez Ahaide Nagusiaren boterearengatik, baizik eta Areriako partaideetako bat zelako.

Karta Partidan beste zenbait gauza interesgarri ere aurki ditzakegu. Bertan agertzen denez, garai horretan Zumarragak Urretxutik banatzeko eta ondoren Arerian sartzeko elkarrizketak egon ziren. Gerora arazo gehiago sor ez zitezten, epaileek Zumarragari alkate nagusia lau urtero aukeratzeko ahalbidea eman zioten. Horrezaz gain, Zumarraga edo beste herriren batek Arerian sartu nahi izanez gero, sartzeko zuten urtean txanda zegokion kontzejuari sortutako kalteengatik diru kantitate bat ordaindu beharko zion.

- **Zumarragaren sarrera Arerian**

Karta Partida sinatu eta urte gutxitara, zehazki, 1470. urteko martxoaren 21ean, legezkoa egin zen Zumarragaren sarrera Areriako alkatetza nagusian. Une horretatik bertatik, Karta Partidan ezarritako herrien arteko botere-banaketa berria martxan jarri zen.

Hurrengo 42 urteetan, alkatea aukeratzeko egingo ziren txandak eta audientziaren txandaketa zein izango zen, honako irizpideak jarraituz ezarri ziren: txanden zazpirena Arriaranentzat izango ziren, eta gainerako urteak beste tal-

deen artean banatuko zituzten: txanden erdia Gabiria, Itsaso eta Ezkioentzat, laurdena Lazkao eta Olaberriarentzat eta azken laurdena Zumarragarentzat.

Era berean, zenbait berrikuntza sartu zituen. Karta Partidak 42 urtetako eperako egin zituen partidu bakoitzaren banaketa; hau da, *handizkako* banaketa egiten zuen. Baina, momentu honetatik aurrera, barne-banaketarako herriek txanden *txikizkako* banaketa egitea erabaki zuten. Egin zen barne-banaketa guztiz bestelako izan zen:

- Gabiria, Itsaso eta Ezkiok osatzen zuten blokeak, 42 urtetan 18 txanda zituztenak, banaketan Gabiriari 10 txanda, Itsasori 6 txanda eta Ezkiori 2 txanda eman zizkien.

- Lazkao eta Olaberriak, 42 urtetan 9 txanda zituztenak, honela banatu zituzten: 7 txanda Lazkaoentzat eta 2 txanda Olaberriarentzat.

- Zumarragak 42 urtetan beste 9 txanda hartu zituen.

- Arriaranek 42 urtetan alkatea aukeratzeko 6 txanda izaten jarraitu zuen.

Ondorioz, oraingoan kontzejuaren txanda-banaketa herrien interes propioen arabera egin zen.

Beraz, lehenengo taulan laburtu dugun moduan gelditu zen 42 urteko lehenengo txanda edo *errola*. Taula horretan, herri bakoitzak Areriako alkatetza nagusiko makila nola txandatu zuen ikus daiteke. Horretaz gain, taula horri esker ere, ikus

1. taula

Lehen errola, 1473-1514

KONTZEJUAK	URTEAK	KONTZEJUAK	URTEAK	KONTZEJUAK	URTEAK
Zumarraga	1473	Zumarraga	1487	Zumarraga	1501
Ezkiok	1474	Gabiria	1488	Gabiria	1502
Arriaran	1475	Arriaran	1489	Arriaran	1503
Lazkao	1476	Olaberria	1490	Lazkao	1504
Itxaso	1477	Itxaso	1491	Itxaso	1505
Zumarraga	1478	Zumarraga	1492	Zumarraga	1506
Gabiria	1479	Gabiria	1493	Gabiria	1507
Lazkao	1480	Lazkao	1494	Olaberria	1508
Gabiria	1481	Ezkiok	1495	Gabiria	1509
Arriaran	1482	Arriaran	1496	Arriaran	1510
Zumarraga	1483	Zumarraga	1497	Zumarraga	1511
Itxaso	1484	Itxaso	1498	Itxaso	1512
Lazkao	1485	Lazkao	1499	Lazkao	1513
Gabiria	1486	Gabiria	1500	Gabiria	1514

Iturria:

Zumarragako Udal Agiritegia (ZUA), B/1/1/11.

daiteke zein ondo bete ziren Karta Partidan ezarritako banaketa nagusiak. Sistema hau XVI. mendean zehar erabili zuten.

1473tik 1514ra zihoan 42 urteko lehenengo eroldaren ondoren 42 urteko bestea ezarri zen (1515-1556) eta ondoren beste

hirugarren bat (1557-1598). Laugarren erroldan (1599-1640) herrien arteko arazo larrienak sortu ziren; eta arazo horietan Lazkao izan zen protagonista berriro ere.

2

Lazkaok Arerian izan
zuen bilakaera politikoa izan
zuen bilakaera politikoa

Lazkaoko bizitza politikoa Areriako alkatetza nagusiaren barruan inolako arazo handirik gabe igaro zen XVI. mendean zehar. Hala ere, 1615. urtean XV. mende bukaeran ezarritako txandean sistemak aldaketa berriak jasango ditu.

- **Lehen lurralde-aldaketak**

Kontuan hartu behar dugu 1615. urte ingururako Tolosa, Segura eta Ordiziaren menpe zeuden herri askok jadanik independentzia lortu zutela. Une horretan Idiazabal, Ormaiztegi, Ataun, Zaldibia edo Abaltzisketa... herriek -independentzia lortu zuten hogeita hamar herrietatik batzuk esatearren- Felipe III.ari hiribildu titulua erosi zioten.

Baina hiribilduetatik banatzea eskatu zutenak ez ziren herriak bakarrik izan; etxe partikularrek eta zenbait bizilagunek ere eskatu zioten independentzia erregeri. Bestek beste, Iribe oinetxea Ordiziaren menpe zegoen, eta 1615. urtean Lazkao herriko parte izatea eskatu zuen. Etxearen jabea Iribeko Maria andrea zen, eta 1615. urtean Iribe etxeak Lazkaoko unibertsitatearen parte izatea lortu zuen.



Arieriako alkatetza nagusiaren lehen lau erroldak.

Dokumentu honek Arieriako herriak boterea eskuratzekoan izan zuten hurrenkera biltzen du. Txandak partidu edo taldeka aurkezten ditu, ez herrika. “c” letra Gabiriak, Itxasok eta Ezkiok osatutako taldeari dagokio; “l” letra Lazkaok eta Olaberriak osatuari; “a” letra Arriarani, eta, azkenik, “ç” letra “Çumarraga”ri dagokio. Azken errolda 1615.ean eten zuten.

Baina Iribe ez zen izan Arieriako alkate-tza nagusiaren zati bilakatu zen etxe bakarra. Garai hartan, Ezkioko etxe gehienak eta Itsasoko zenbait etxe (Zandategui eta Basarte etxeak, esate baterako) Segurako hiribilduaren parte ziren; beraz, ez zeuden Arieriako alkatearen aginpidearen menpe, Segurakoarenaren menpe baizik.

Gabiria eta Segurako etxe horiek ere 1615. urtean Seguratik banatu ziren, eta Arieriako alkatetza nagusiaren parte izatera igaro ziren. Eskaera Miguel de Okendo jeneralaren alargun Maria de Zandategui y Basarte etxe-jabeak eta Ezkio eta Gabiriako bizilagunek egin zuten. Erregeren opari honengatik, etxe-jabeek bizilagun bakoitzeko 25 dukat ordaindu behar izan zituzten. Ez zen oso gastu makala izan, kontuan

hartzen badugu Ezkioko etxeak 40 zirela eta Gabiriakoak 11 bat.

Etxe-jabe hauek gainerako biztanleek zituzten eskubide berekin sartu ziren alkatetzan. Aurrerantzean, etxe-jabeak Arieriako ofizialen hautatzean parte har zezaketen, eta beraiek ere edozein karguetarako aukeratu zitzaizketen.

• Arazoak botere-banaketarekin

Etxe hauek gehitzeak aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen Arierian, eta ondorioz, Lazkaorentzat arazo gehiago ekarri zituen.

Arieriako alkatetza nagusiak Gipuzkoa gobernatzen zuten Batzar Nagusietan parte

hartzen zuen. Gipuzkoan, alkatetza edo hiribildu bakoitzak *su* kopuru jakina egokitua zuen. *Suak* jatorriz etxeak ziren eta “Gipuzkoako Ordenantza Koadernoetan” bilduta zeuden. Su hauek herri bakoitzak Batzar Nagusietan zuen boterea adierazten zuten. Ordura arte, Arieriak 90 su eta erdirekin bozkaten zuen Batzar Nagusietan; zenbateko hau garrantzitsua zen, Azeria Gipuzkoako 10 herri boteretsuenen artean kokatzen baitzuen. 90 su eta erdi horietatik, 16 Lazkaori zegozkion.

Foruen arabera, 1615. urtean Arierian sartu ziren Ezkio eta Gabiriako etxeei 17 su

zegozkien. Su hauek Segurako herriari kendu eta Arieriako alkatetza nagusiarri gehitu zitzaizkion. Beraz, une horretatik aurrera, Arieriak Batzar Nagusietan 107 su eta erdi zituen. Su-kopuru honekin Azeria Gipuzkoako Batzarreko bosgarren herri boteretsuena izatera pasa zen.

Ezkiok eta Gabiriak, beren su eta bizi-lagun-kopurua handitu zela ikusirik, alkatetzako txanda gehiago eskatu zituzten; eta horretarako, alkate nagusia aukeratzekoan, beraiantzako probetxugarria izango zen banaketa berria bultzatu zuten.



Iribe Haundi etxea

Iribe oinetxea 1618an sartu zen berriro Lazkaon; ordura arte Ordiziakoa izan zen. Dena dela, probintziako gastuei zego-kienez, urte askotan jarraitu zuen Ordiziako etxe gisa. 1618 eta 1655 artean, Iribek alfabala zelako errege-zergagatik eta probintziako gastuengatik ordaindu beharreko guztia bere gain hartu zuen Ordiziak. 1655.ean, Iribe etxeko jabe Domingo García de Arangurennek, Ordiziari 658 erreal baino gehiago ordaindu behar izan zizkion. 1656.ean 300 baino gehiago ordainduak zituen.

Alkate nagusi Lorenzo Ladrón de Echarreta arriarandarra aldaketa hauen alde agertu zen, eta 1616ko ekainaren 8an Aleriako alkate nagusiaren bilera deitu zuen. Lazkaok bere udaleko kide garrantzitsuenak bidali zituen: alkate arrunt Juan Insaurrondo, eta Martín de Estensoro eta Pedro de Ercilla erregidoreak. Egun horretan, Aleriako udalbatzen ordezkari guztien aurrean, txanden banaketa aldatzea eta sartu berriak ziren etxeak biltzen zituen errolda berria egitea eskatu zuten. Lazkao, Zumarraga eta Olaberriaren erantzuna berehalakoa izan zen: Ladrón de Echezarretari errolda okerra egitea leporatu zioten, ordura arteko txanden banaketa nahasten baitzuen. Lazkaok, Zumarragak eta Olaberriak errolda zaharra ez aldatzea eta sartu berriak ziren etxeak txanda zego-kienean bozka zezatela proposatzen zuten.

Protesta hauek egin arren, hurrengo 42 urteetarako errolda 1616. urteko ekainaren 11n zehaztu zen. Egun horretan, alkatezaren bilera nahiko korapilatsua suertatu zen, bertara “muchas gentes y tumulto entre quienes se movió alteración sobre los asientos” gerturatu baitzen. Bizilagun askok bile-

ran parte hartu nahi zuen, baina alkate nagusiak herri bakoitzetik bi diputatu -Arriaranek eta Olaberriak bakoitzak bat bidali zezaketen- joateko agindu zuen.

Bilera honetan, Ezkio eta Gabiriaren artean zozketa bat egin ondoren, alkate nagusia urte horretako irailaren 29an Ezkiok izendatuko zuela erabaki zen. 1617. urteko txanda Olaberriari eman zioten, herri honi baitzegokion, eta hirugarrena Gabiriari eman zioten. Bilera honela amaitu zen, ilundu baitzuen. Hala ere, bilera hurrengo egunean jarraitu zuten.

Ekainaren 12an Lazkaoko, Zumarragako eta Olaberriako ordezkariak ez ziren joan. Alkate nagusiak auzi-ihestzat jo zuen kasua eta errolda berria bukatu zuen. Gabiriak lehen zituen 10 surekin konformatu behar izan zuen, nahiz eta sartu berri ziren etxeengatik 6 su gehiago jaso behar zituzkeen. Arriaran eta Itsaso ere berdin geratu ziren, baina Ezkiok lehen zituen bi txandei beste 4 txanda gehitu zizkion. 4 txanda horiek Lazkaori -lehen zituen 7 txandetatik orain 5 zituen- eta Zumarragari -lehen zituen 9 txandetatik orain 7 zituen- kendu zizkien (ikus 2. taula).

2. taula

1616.ean ezarritako errolda berria

KONTZEJUAK	URTEAK	KONTZEJUAK	URTEAK	KONTZEJUAK	URTEAK
Ezkio	1616	Gabiria	1630	Ezkio	1644
Olaberria	1617	Ezkio	1631	Zumarraga	1645
Gabiria	1618	Gabiria	1632	Itxaso	1646
Zumarraga	1619	Zumarraga	1633	Gabiria	1647
Itxaso	1620	Itxaso	1634	Olaberria	1648
Lazkao	1621	Lazkao	1635	Gabiria	1649
Arriaran	1622	Arriaran	1636	Arriaran	1650
Gabiria	1623	Gabiria	1637	Ezkio	1651
Ezkio	1624	Ezkio	1638	Zumarraga	1652
Gabiria	1625	Zumarraga	1639	Itxaso	1653
Zumarraga	1626	Itxaso	1640	Lazkao	1654
Itxaso	1627	Lazkao	1641	Gabiria	1655
Lazkao	1628	Gabiria	1642	Zumarraga	1656
Arriaran	1629	Arriaran	1643	Arriaran	1657

Iturria:
ZUA, B/1/1/9.

Lazkaok, Zumarragak eta Olaberriak, beraien botere-galtzea zela eta, Gortearen aurrean eta Valladolideko Chancilleriaren aurrean salaketa jartzea erabaki zuten. Gortean, Felipe III.ak arazoa ikertzeko agindua eman zuen. Lazkaok partidu edo alderdi bakoitzak zehaztuta zituen txandak ez aldatzea proposatu zuen. Nolanahi ere, Ezkio, Gabiria eta Itsasok zegozkien 18 txanda horiek beraien artean modu egokiago batean banatu beharko lituzkete, antzinako erroldaren arabera. Baina Lazkaok eta Zumarragak ezin zuten inola ere onartu 4 txanda kentzea, honek Karta Partidan ezarritako oinarriak aldatzen zituen-eta.

Azkenean, Chancilleria, organo judizial gorena, Lazkao, Zumarraga eta Olaberriaren alde agertu zen. Beraz, 1617. urtean emandako epaian, errolda berria baliogabetu eta antzinakoa berrezarri zen.

- **Etxe berrien sarrera Lazkaon**

Ezkion eta Gabirian gertatzen zen moduan, Lazkaoko lurretan zeuden zenbait etxe ez ziren bere aginpidearen menpe bizi; hau da, beste udalerrri baten menpe zeuden. Etxe hauek Berant Erdi Aroan banandu ziren Lazkaotik. Zehatzago esateko, 1399. urteko apirilaren 8an Lazkaoko zenbait biztanle Ordiziako herriaren agindupean sartu ziren. Beraz, nahiz eta beraien etxeak Lazkaoko lurraldean egon, etxe horietako jabeak eta oinordekoak Ordiziako alkatearen eskumenean zeuden, eta Ordiziak ezarritako zergak ordaintzeko konpromisoa hartu zuten. Hauek ziren Ordiziaren eskumenean zeuden etxeak: Maizandia, Iztueta Goikoa, Iztueta Behekoa, Yusoko Ibarrolaburu, Insaurrondo, Maiz Goikoa, Maiz Ixurrena, Izaguirre Goikoa, Izaguirre Behekoa, eta Susoko Gomendradi.

Hala eta guztiz ere, XVI. mendearen hasieran Ordiziako zergak ordaintzen zituzten Lazkaoko pertsonen kopurua askoz ere handiagoa zen. 1526. urtean Ordizia eta bere inguruko bizilagunen artean ohiko gastuen banaketagatik egindako auzian, Lazkaoko pertsona eta ondasun asko sartu ziren. Batzuek Ordizian funts-ondasunak zituzten (lurrak, sagarrondoak...), baina beste batzuk bertako biztanle ziren (ikus 3. taula). Amiribiako errota eta beste 33 lagunek, Ordizian ordaintzen zituzten zergak. Lagun horien deituetako askok 1399. urtean Ordiziaren menpera igaro ziren etxeekin harremana zuten.

Herritar guztien ondasunak oinarritzko neurri baten arabera neurtzen ziren. Neurri hau “burua” zen, eta etxeen, lurren eta sagardien balioa dirutan neurtzen zuten. 1549an, buru oso batek 1706 dukat balio zuen. Neurri honetatik abiatuta, herritarren ondasunak neurtzen zituzten, proportzionalki. Beraz, gehien ordaindu behar zuten herritarrek, “buru” gehien zutenak ziren. Gutxien ordaintzen zutenen ondasunak 1/16 buru balio zuen.

3. taula

1526 eta 1622.ean zergak Ordizian ordaintzen zituzten pertsonen eta ondasunen zerrenda

BURUAK	1526	1622
buru 1	El solar de Lazcano Martín de Gomendradi Martín de Iztueta de Yuso El molino de Amiribia Juan de Maiz del Medio	
1/2 y 1/3		Juan de Iztueta
2/3	Juan de Ibarrolaburu, dicho Insausti	
1/2	Miguel de Maiz de Suso Miguel de Cibizquiza, carpintero Pedro de Iztueta de Suso Juan de Maiz, dicho Ixur Juan de Arama Eizaguirre Juan, hijo de Juan de Elosegui	Miguel de Maiz
1/3	Juan López de Beguiristain Los herederos de Juan de Arbide Juan de Andraiturri	El molino del concejo de Lazkao
1/4	Juan Arza, el mozo Juan de Ercilla de Yuso El heredero de Miguel Gaizto Martín de Iztueta	Martín de Maiz La casa de Insaurreondo
1/6	El yerno de Ixur de Maiz El hijo de Juan de Maiz de Iztueta, dicho Albisu El casero de Emparandia Juan de Anzizar, cantero El heredero de Pedro de Iztueta de Suso Juanes de Urtesabel Juan de Zufiaurre El hijo de Domenja de Cibizquiza de Mendizabal Martín de Eizaguirre, hijo de Miguel Domenja de Maiz del Medio El hijo de Miguel de Maiz de Suso García de Ercilla Martín de Larrea Miguel de Ibarrolaburu El hijo de Juan de Nájera	Domingo de Iztueta Juan de Maiz de Suso Felipe Arza Juan de Elosegui Pedro de Gomendradi El hijo de Juan de Zubiria Goyena
1/8		La casa de Cibizquiza
1/16		Martín de Mariategui Lope de Aguirre Juan de Ercilla Pedro de Ercilla Miguel de Ibarrolaburu La casa de Insaurreondo por la compra de la casa de Insausti Juan de Urrutia La casa de la hermana del vicario Juan de Zufiaurre Domenja de Urquiola Los herederos de don Juan de Ondarra Don Felipe de Lazcano Miguel Arza Domingo de Larrea Juan de Zufiria por las tierras que compró de Juan de la Plaza

Iturriak:

Valladolideko Erret Chancilleriako Agiritegia, Gizarte Pleituak, Zarandona escribua, Bukatutako Pleituak, C 742/5, L 139.
AGG-GAO, CO UCI 338.

1615ean, Gabiriak eta Ezkiok eginda-koari jarraituz, lehen aipatutako zenbait etxek Ordiziatik banatu eta Lazkaon sartu nahi izan zuten. Are gehiago, zenbait urteetan ez zituzten ordaindu Ordiziak urtero banatzen zituen ohiko gastuak. Hala ere, 1622ko epai batek, ordura arte Ordiziari ordaindu ez zioten guztia ordainarazi zien. Une horretan, 26 pertsonak eta ondasunek ordaindu behar zizkioten Ordiziari udal gastuak (ikus 3. taula).

Ordizia eta Lazkaoko bizilagunen arteko arazo hauek hurrengo urteetan jarraitu omen zuten. Azkenik, bi alderdiek ados jarri behar izan zuten etxe hauek Lazkaon sartu eta, honenbestez, Ordiziatik bana zitezen.

1645. urteko irailaren 7an, Ordiziako erregimendu edo udaleko kideek alkateari eta beste bizilagun bati Ordiziatik banandu nahi zuten etxeen jabeekin eztabaidatzeko boterea eman zieten. Etxe horiek, 1399an Ordizian sartu ziren 10 etxeak ziren. Hauen jabeak ziren: Juan Martínez de Zunzunegi; Felipe de Iztueta jauna, sakristau presbiteroa; Yusoko Martín de Iztueta; Ibarrolaburuko Domingo de Imaz; Insaurrendoko Pedro de Echeverria; Ibarrolaburuko María López eta haren senar Pedro de Erauscain; Madalena Aguirre (Julian de

Estensorokoren alarguna); Martín de Zeberio Lizargarate; Andrés de Echeverria eta Julian de Aguirre. Pertsona hauek Ordiziatik oso urruti bizi zirela, eta Lazkaoko San Migeleko eliztarrak zirela argudiatu zuten. Auzi eta iskanbila gehiago saihesteko, guztiak Lazkaon sartzea erabaki zuten.

Azkenik, Ordiziak azalpen hauek onartu zituen eta 1648. urteko otsailaren 16an bat-etortze eskritura sinatu zuten. Bat-etortze honekin batera, hamar etxeak Lazkaon sartu ziren, eta bertako gobernua eta aginpidea betetzeko hitza eman zuten. Ordutik aurrera, etxe hauek Lazkaon ordainduko zituzten beraiei zegozkien udal-gastuak eta baita Lazkaoko Gipuzkoako Batzar Nagusietan zituen gastuak ere.

Baina Ordiziatik banatzea ez zen guztiz dohainekoa izan. Eskrituretan jartzen zuenez, banandutako etxeen jabeek Ordiziari zilarrezko 200 dukat bikoitz ordaindu beharko zizkioten, nahiko diru-kopuru handia. Baina diru hori ez zen Ordiziari egin behar zitzaion ordainketa, laguntza ekonomikoa baizik, garai hartan Ordiziak udaletxea berritzeko egin behar zuen obrako gastuak oso altuak baitziren. Zilarrezko 200 dukaten banaketa etxe bakoitzak Ordiziako erroldan zuen balioaren arabera egin zen (ikus 4. taula).

4. taula

Beretutako etxeen ordain proportzionala, 1648

ETXEAK	EHUNEKOA
Maizandia	26 %
Gomendradi de Arriba	10 %
Maiz Ixurrena	10 %
Maiz de Suso	9 %
Insaurrendoko	9 %
Izaguirre de Abajo	8 %
Ibarrolaburu de Abajo	8 %
Iztueta de Arriba	8 %
Izaguirre de Arriba	6 %
Iztueta de Abajo	6 %

Iturria:

AGG-GAO, JD IM 1/18/35.

Handik gutxira, 1658an, Lazkaoko bizilagunek Felipe IV.ak egindako diru-eskaera aprobetxatu zuten bat-etortzea berretsi zezala eskatzeko. 1658ko urriaren 12an Lazkaoko udalak lau pertsona izendatu zituen, probintzian erregeren ordezkaria zen korrejidorearekin batera (garai hartan Lope de los Ríos y Guzmán jauna) Lazkaok eman behar zuen diru-oparia zehatz zezaten. Lazkaoko ordezkariak hurrengo egunean bildu ziren korrejidorearekin, eta 150 dukateko oparia eskaini zuten. Baina oparia eskaintzeko ezinbesteko baldintza bat jarri zuten: korrejido-reak bat-etortzearen eskrituraren erregeren berrespena lortu behar zuen. Lope jaunak diru-kopurua onartu zuen eta eskrituraren berrespena lortzeko konpromisoa hartu zuen.

Baina, dirudienez, handik gutxira korrejidoreari ordaindutako diru-kopurua gutxi iruditu zitzaion, eta 1659ko urtarri-lean etxe horietako bost jabeak (Juan Martínez de Zunzunegi, Pedro de Erauscain, Domingo de Imaz, Francisco de Echeverria eta Pedro de Estensoro) 50 dukat gehiago ordaintzeko konpromisoa hartu zuten. Beraz, eskrituraren berrespena lortzeko ordaindu zen diru-kopurua 200 dukatekoa izan zen. Lazkao eta etxeetako jabeek 1663ko uztailaren 31n bukatu zuten diru-kopuru hori ordaintzen; eta urte horretan bertan, irailaren 13an bat-etortzea onartu zen.

Bat-etortzea egon arren, hurrengo urteetan ere izan ziren arazoak Ordiziarekin. Arrazoia hau zen: Ordiziak etxe horiei zegokien probintziako gastuen zatia ordaintzen jarraitzen zuen. Dirudienez, etxe horiek Batzar Nagusietan 6 su eta sei zazpireneko balioa zuten, eta proportzio hori errespetatuz ordaindu behar zituzten gastuak. Baina su horiek, Gabiria eta Ezkioko kasuetan ez bezala, Lazkaok ez zituen bereganatu eta, beraz, Ordiziako suen barruan zeuden.

Azkenean, etxe horietako jabeek Ordiziak 1648 eta 1663. urteen artean beraien

ordez ordaindutako probintziako gastuak ordaindu behar izan zituzten. Une horretatik aurrera, erregeak bat-etortzearen eskritura berrestearekin batera, Ordiziari su-kopurua jaitsi zitzaion, eta Lazkaori igo.

Arazo bera izan zuen 1618an Ordiziatik banandu zen Iribe etxeak. Hasiera batean, Iribe etxeak probintziako gastuetan su heren batekin laguntzen zuela esan zuten. 1649. urtean Batzar Nagusiak Iribe etxeari agindu zion Ordiziak 1618. eta 1649. urteen artean ordaindutako diru guztia ordain zezan. Hala eta guztiz ere, baten batek gaizki egin zituen kalkuluak: 1655. urtean Ordiziak ziurtatu zuen Iribe etxeak bi su heren zituela. Ondorioz, Iribe etxeke jabeak, Domingo de Aranguren jaunak, denbora epe horretan egindako gastuen heren bat ordaindu behar izan zion Ordiziari. Gerora, bi herenak Lazkaok gastuen ordainketan zituen 16 suti gehitu zituzten.

• Batzar Nagusietan boterea gutxitzea

XVII. mendearen bigarren erdian, Aleriako alkatetza nagusian aldaketa garrantzitsuak izan ziren. Aldaketa hauek eragin handia izan zuten Lazkaok probintzian izan zezakeen boterean.

Dirudienez, Aleriako zazpi kontzejuen arteko liskarrak etengabeak ziren. Dokumentazioak dioenez, herri desberdinen arteko antzinako “bakea eta batasuna” hausten ari zen. Arazo horiek, Zumarraga 1660. urtean Aleriako alkatetzatik banatzera eramane zuten. Urte horretan bertan Zumarragak hiribildu-titulua lortu zuen Felipe IV.rengandik. Honela, Zumarraga Aleriako alkatetza nagusiaren aginpidetik libre gelditzen zen; horretaz gain, une horretatik aurrera Zumarragak bere prokuradore propioa bidal zezakeen Batzar Nagusietara, alkatetzaren bitartekaririk gabe. Banaketak 600 dukateko gastua ekarri zuen.

Berehala, Ezkiok eta Gabiriak Zumarragaren bidea jarraitu zuten. Ezkiok 1661eko martxoan lortu zuen erregeoparia, eta Gabiriak hiribildu-titulua urte bereko azaroan lortu zuen. Hiru-hiribilduek, Foruak ematen zizkien suen arabera bozka zezaketen Batzarretan.

Modu honetan, Aleriako alkatetza nagusia Lazkaok, Olaberriak, Itsasok eta Arriaranek osatzen zuten orain. Banaketa horien ondoren, Batzar Nagusietako erabakietan Aleriako alkatetzak zuen benetako boterea izugarri gutxitu zen. Ordura arte, Aleriak 107 su eta erdirekin bozkatzen zuen Batzar Nagusietan, baina, banaketaren ondoren, Aleriak 38 su zituen -Itsasok 19, Lazkaok 16 eta Olaberriak 3-. Ordutik aurrera, lau herriek zailtasun ekonomikak izan zituzten prokuradoreak Batzar Nagusietara bidaltzean sortzen ziren gastuak ordaintzeko.

Hala ere, egoera honek gutxi iraun zuen. 1679ko maiatzean Ornaiztegiko, Astigarretako eta Gudugarretako ordezkariak Lazkao, Olaberria, Itsaso eta Arriareneko



Aleriako Batasunaren bilerak Ornaiztegiko dorretxean egin ohi zituzten arren, Lazkaoko kontzejuko etxeetan ere bildu ziren Aleriako Batasuneko kideak.

ordezkariekin bildu ziren, eta batasun berri bat sortu zuten, *Arieriako Batasuna*, alkate-tza nagusiarekin zerikusirik ez zuen elkarte desberdina.

Arieriako Batasuna, osatzen zuten herriek zituzten zor eta gastuak zirela-eta sortu zen. Herri bakoitzak ezin zituen bere aldetik ordaindu prokuradoreak Batzar Nagusi Orokorretara eta Partikularretara joateko bidaiek sortutako gastuak, eta prokuradoreak joatea derrigorrezkoa zen. Horregatik, zazpi herrien izenean prokuradore bakarra bidaltzea erabaki zuten. Batzarkide hau Arieriako Batasunaren izenean joango litzateke, eta Batzar Nagusietan herri hauen interesak defendatuko zituen. Horretaz gain, Batasunak bertan bildutako herriei zegozkien suak biltzen zituen, 56 guztira.

Batzarkideak hautatzea herri bakoitzari txandaka egokituko zitzaion. Baina banaketa hori ez zen berdina izan guztientzat; Lazkao eta Itsasorentzat guztiz ona izan zen, beraiek baitziren Arieriako herriekin anaituta zeuden hiribilduak. Hurrengo 16 urteetan herri bakoitzari zegokion banaketa honakoa izan zen: Ormaiztegi 2 urte, Astigarreta eta Gudugarretari urtebete bien artean, Itsasori 6 urte, Lazkaori 6 urte eta Olaberriari urtebete. Herri bakoitzari egokituko zitzaizkion urte jakinak zozketa bidez erabaki ziren. Kontzejuak, zegokion txandan, urte horretan prokuradoreak sortzen zituen gastuak ordaindu behar zituen, eta herri bakoitzari Batzarretako erregistroaren kopia bana eman behar zion.

Batasun hau denbora baterakoa izan zen, 16 urterako hain zuten ere. Hala ere, XVII eta XVIII. mendeetan zehar kontratua inolako aldaketarik gabe berritzeak, Batasunak ondo funtzionatu zuela erakusten digu.

Nahiz eta hasiera batean Arieriako Batasuna alkatetza nagusitik aparte zegoela esan, gerora bi erakunde hauek nahasi egin ziren zenbait kontutan. Bi elkarte hauek akta-liburu berean, tartekaturik, bil-

duta aurki ditzakegu. Horretaz gain, alkate-tzako eta Batasuneko bilerak Ormaiztegin zegoen “Arieriako alkatetza nagusiko udalaren dorretxe” berean egiten zituzten. Arriaranek Batasuneko bileretan parte hartzen zuten, baina ez zuten prokuradorerik izendatzen. Are gehiago, 1728an alkatetza nagusiaz gozatuko zuen herrien txandakatzearabakitzten zen bileran Gudugarreta, Astigarreta eta Ormaiztegiako ordezkariak parte hartu zuten, baina, hala ere, ez zuten ebazpenean parte hartu.

Ez dakigu Zumarragak, Gabiriak eta Ezkiok Arieriako alkatetza utzi zutenetik zeintzuk izan ziren alkate nagusia izendatzeko txandak, baina uste dugu Lazkao, Itsaso, Olaberria eta Arriaranen artean banaketa desegokia egiten jarraitu zutela, aurrekoaren antzera. Hala ere, ez dakigu ziur Arieriako Batasuneko herriek txanda horietan parte hartu zuten ala ez. Are gehiago, alkatetza nagusiko gai jakinetan -zenbakiko eskribauaren hautespena, herritik herrira egiten zen artxibo eta ikurren aldaketa- alkatetza osatzen zuten lau kontzejuetako ordezkariak bakarrik hartzen zuten parte.

3

Lazkaoko kontzejuaren barne-antolaketa

jejuaren

barne-antolaketa

Antzinako Erregimenean, Lazkaoko gobernu-erakundeak aldatzen joan ziren, gertatzen ziren aldaketei egokitzeko. Lazkaoko jaunak Erdi Aroan herriarengan izan zuten botere politikoa gutxituz joan zen. Antzinako

Erregimenaren garai honetan, Lazkaoko bizilagunek, edo horien arteko hautatutako batzuek, hartu zuten elkarte oso honen gobernua.

- **Gobernu-erakundeak**

Bi ziren Lazkaoko gobernu-erakunde nagusiak, Gipuzkoako gainerako herrietan bezalatsu: biztanleen kontzeju nagusia eta erregimendua.

Biztanleen kontzeju nagusia herritar guztiak biltzen zituen biltzarra zen; bertan, Lazkaoko komunitatearentzat garrantzitsuak ziren gaiei buruz eztabaidatu eta erabakitzeke biltzen ziren. 1462. urteko Ordenantzak argi adierazten du gobernuari dagozkion erabakiak alkate arruntak eta kontzejuko ofizialek “con la mayor parte de los vecinos” hartuko dituztela.

Gai garrantzitsuak zeintzuk ziren ez zegoen zehaztuta, baina herri guztiari zegozkion gaiak ziren. Esate baterako, gastu handiak ordaintzeko kredituak eskatzea, beste herri batzuekin elkartasun-idatziak, kontzejuko ondasunen (lurrak, errota...) erosketak edo salmentak, erregeari dirua edo milizientzat pertsonak ematea, eta nola ez, kontzejuko ofizialen hautespena. Gai hauetan guztietan, bizilagunen gehiengoaren babesa behar zen; hori bai, udalean boto-eskubidea zuten bizilagunen babesa.

Hala ere, denborak aurrera egin ahala, gobernu-organo murriztaileenak garrantzia hartu zuen: *erregimenduak*. Organo hau zenbait ofizialek osatzen zuten; ateak itxita, Lazkaoko arazo arruntenak erabakitzeke biltzen ziren. Boto-eskubidea zuten bizilagunek aukeratzen zituzten ofizial hauek eta karguak urtero San Migel egunean berritzen zituzten.



Begiristain Haundi etxea.

1548.ko erroldan Lazkaoko etxe baliotsuena Juan de Beguiristainena zen. 1573.an ere etxe hau izan zen baliotsuena, bere ondasunetan etxeaz gain sagarrondoak, hariztiak eta 96 gari fanega erein zitezkeen lurrak barnean sartu zituztelako. Ondasun hauei bi buruko balioa eman zieten.

Kronologiaren ikuspuntutik, pixkanaka kontzeju nagusietara zihoan bizilagunen kopuruak behera egin zuela ikus daiteke. Bizilagunen parte-hartzea eztabaidan zegoen gaiaren garrantziaren arabera zen. Ikus ditzagun adibide batzuk.

1570. urtean kontzejuko ofizialez gain, 26 bizilagun bildu ziren Lazkaoko plazan, kreditu baten eskaera sinatzeko. Guztiak bizilagun eta herritar guztien “mayor y más sana parte”-ren ordezkariak ziren. 1644an errota baten salmentagatik eskritura xedatzeko 39 bizilagun bildu ziren. Hala ere, mende bat beranduago, 1744an, udalak edo kontzeju nagusiak 13 lagun bildu zituen Iribeko errotariarekin zegoen arazo bati buruz eztabaidatzeko.

Parte-hartzearen beherapena ere argi ikusten da Lazkaoko ofizialak hautatzeko orduan. 1603. urteko irailaren 29an, 40 lagun bildu ziren udalean, “votantes y electores”, hau da, parte-hartzeko eskubidea zuten gehienak. Hala ere, 1678an hauteskundeetan parte-hartu zutenen kopurua 27ra jaitsi zen, 1682an 22ra, 1685ean 14ra eta 1691n 13ra. Beraz, argi dago, denboraren poderioz gobernuan parte hartzen zuten pertsonen kopurua asko murriztu zela.

XVII. mendeko bigarren erditik aurrera, ohikoena zen kontzejuko bilerak oso jende-kopuru murriztarekin egitea, 8 eta 15en artean, eta hauei 1744 urtean honela zeritzen: “vezinos conzejantes de este dicho conzejo y la maior y más sana parte de los que le componen”. Bilera hauei ezin diegu *kontzeju ireki* deitura eman, bertan parte hartzen zuen jende-kopuru txikiarengatik, baina hala ere, “aiuntamiento” edo kontzeju nagusia izendapena jasotzen zuten. Erdi-mailako bilgunea izango litzateke, eta bertan bizilagun pribilegiatu talde batek -garrantzizkoa ziren eta baimena zuten bizilagunek osatua- hartuko litzuke erabakiak.

Lazkaoko kontzejuko karguak oso gutxi aldatu ziren garai hartan. Honako hauek ziren ofizial garrantzitsuenak:

- Aleriako alkate nagusia, Lazkaori txanda zegokionean.
- Alkate arrunta, Lazkaok sei urtetik bostetan aukeratzen zuena; seigarrena Olaberriak izendatzen zuen. Era berean, alkateordea ere aukeratzen zuten. Bere egitekoen artean Lazkaoko gobernurako egiten ziren bileren buru izan eta bere lurraldean justizia ematea zegoen.
- Bi erregidore. XVI. mendean erregidore fidel izena hartzen zuten. Gobernuko gai arrunten inguruko erabakiak hartzen zituzten eta beren ebazpenak martxan jartzen zituzten.

Orain arte aipatutako ofizialek Erregimendua osatzen zuten. Horietaz gain, bazeuden bigarren mailako beste kargu batzuk:

- Epaimahaikide bat, XVI. mendean eta XVII. mendearen zati batean hautatua. XVII. mendeko bigarren erdian desagertzen da. Bere eginbeharra hau zen: alkatearen eta erregimenduaren erabakiak gauzatzea.
- Maiordomo diruzaina. Udaleko finantzak kudeatzearen arduraduna zen.

- Eskribau fidela. Lazkaok egiten zituen ekintza juridiko guztien fede publikoa ematen zuen.
- Zenbait basozain.
- Bi epailekide. XVII. mende hasierako dokumentu batzuetan bakarrik agertzen dira. Nahiz eta ez dakigun zein zen beren egiteko zehatza, baliteke alkatearen lege-aholkulariak izatea.
- San Prudencio eta San Juan de Maizeko maiordomoak. Bi parrokia hauetako kontabilitateaz arduratzen ziren.



Herritar asko biltzen zituzten kontzeju nagusiko bilerak, XVI. mendean, Lazkaoko plazan ospatzen zituzten. XVII. mende hasieran udaletxean egiten hasi ziren. Dena dela, hainbatetan herritarrek Lazkaoko elizaren plazan biltzen jarraitu zuten, 1616.ean errold berria osatzeko biltzerakoan egin zuten moduan. XVIII. mendean Lazkaok bi udaletxe zituen. Era berean, badakigu 1767.ean erregimendua kontzejuarena zen “casa de la plaza llamada Maisurenea” zelakoan bildu zela.

Kontzeju irekian eta Erregimenduan, erabakiak botoen gehiengoaren arabera hartzen zituzten. Hasiera batean alkateak ez zuen kalitatezko botoa, baina badirudi nolabaiteko eragina bazuela, berak hitz egiten baitzuen lehenik. Batzuetan, bertan zeuden bizilagunek bozkatu egiten zuten. 1766. urteaz geroztik, eta Carlos III.a erregearen aginduz, herri guztietarako pertsona sindikoa eta arrunterako diputatua Lazkaon aukeratuko zituzten; hauen egitekoa erregidoreekin batera herriko hornikuntzaz arduratzea zen.

• Kontzejurako hauteskundeak

Udaleko ofizialen hautatzea irailaren 29an izaten zen. Hautaketa egiteko modua, XVI. mendean batik bat, konplexua zen. Hau

guztia azaltzeko 1603an kontzeju-etxean egindako hauteskundeak hartuko ditugu adibide gisa.

Egun hartan, Lazkaok aukeratutako Aleriako alkate nagusi Juan de Iztueta, Juan Martínez de Maiz, Aleriako alkate-tza nagusiko bi zenbakiko eskribauak, Felipe de Ercilla eta Juan Martínez de Apaletegi, eta 36 bizilagun bildu ziren. Guztiak ziren eskubide politikoak zituzten bizilagunak, hau da, kontzejuko ofizioetarako bozka zezaketen eta hauta zitzaketen. 36 bizilagunak bi banku-ilaratan eseri ziren, eta gainerako lauak bileraren buru izan ziren.

Ofizialak hautatzeko bidea zozketa izan zen. 40 papertxo egin ziren, guztiak zuriz

egon behar zuten, 9 izan ezik. Horietan alkate, alkateorde, erregidorea, erregidorea, eskribau fidela, epaimahaikidea, eskribau-hauteslea, epailekide eta epailekide hitzak idatzi zituzten.

Ondoren 40 papertxoak txapel batean sartu eta ondo nahasi zituzten. Pedro de Unsainek -ziurrenik ume bat izango zen- txapela bi banku-ilaratan pasa zuen. Bizilagun bakoitzak -bileraren buru zirenak barne- papertxo bat hartzen zuen. Behin txapela hustu zenean, Pedrok txapela presidentziara eraman zuen, “trayendo el sombrero enzima de la caueza boca arriua”. Papertxoan zerbait idatzia zuten bizilagunak izan ziren aukeratuak, eta paperean jartzen zuen kargua jaso zuten (ikus 5. taula).

5. taula

Ofizialen hautespena, 1603

KARGUA	HAUTESLEAK	HAUTATUAK
ALKATEA	Juan de Lavaca	Gabrial Arza, menor
ALKATEORDEA	Juan de Ichaso Goyena	Felipe de Ercilla, sastre
ERREGIDOREA	Andrés de Iribarren	Juan de Ichaso Goyena
ERREGIDOREA	Felipe de Ercilla, sastre	Andrés de Iribarren
EPAIMAHAIKIDEA	Juan de Aguirre Zufiria	Juan Martínez de Murua
EPAILEKIDEA	Juan Martínez Arza	Antonio de Maizpide
EPAILEKIDEA	Juan López de Ercilla	Pedro de Sarasola
ESKRIBAUAREN HAUTESLEA	Francisco de Ibarrolaburu	Juanes de Senper
ESKRIBAU	Andrés de Ondarra	Juan Martínez de Apalategui

Iturria:

AGG-GAO, CO ECI 1821.

Beraz, hautesleek egiten zuten hautespena zuzena eta pertsonala zen. Hautesle batzuek beste batzuk izendatzen zituztela egiazta dezakegu. 1603. urtean hautesle moduan aukeratutako hiru pertsona, ondoren alkateorde eta erregidore izan ziren. Hautaketa modu hau debekatuta zegoen beste kontzeju batzuetan, zozketa bidez hautesle izendatuak ezin baitzituzten karguetarako hautatu. Ondoren, hautatutako

ofizialek alkatearen aurrean bere funtzioa beteko zutela zin egiten zuten. Zin egitea eta gero, lehengo alkateak urte horretako alkate berriari justizia makila ematen zion.

Denboraren poderioz, hautaketa-prozesua erraztu egin zen. Bertaratutako bizilagunen artean kartelak zozketatzen jarraitu zuten, baina dirudienez, hautesle-kopurua hiruraino jaitsi zuten, 1678tik aurrera behin-

tzat. Hiru hautesleak, gela aparte batean, aho batez edo gehiengoz, ofizial berriak zeintzuk izango ziren aukeratzen zuten. Batzuetan, 1691n bezala, ez zen zozketarik egiten, eta bertaratutako guztiek alkate berria aukeratu zuten, guztien adostasunarekin.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu Lazkaoko bizilagun guztiek ez zutela hauteskundeetan eta kontzeju nagusietan parte hartzeko eskubiderik. Eskubide hori baldintza zehatz batzuk betetzen zituztenek bakarrik zuten: beharrezkoa zen Lazkaon bizitzea, eta irakurtzen eta idazten jakitea -hau alkate izateko baldintza zen-. Era berean, “hijodalgo notorio” izan behar zen. Horretarako, batetik, aitoren semeen oinetxe batean izan behar zuen jatorria edo bere aitak edo aitona ofizio publikoetan aritua izan behar zuen, edo bestetik, alkatearen aurrean aitoren semetasuna erakutsi behar zuen.

Aitoren semea izateak ez zuen inolako arazorik sortu Lazkaon. Kasu berezia izan zen Felipe de Zeberio Lizargaraterena. Berau kontzeju nagusitik baztertu zuten, aitoren semea ez izateagatik. Lizargarate de Suso etxeko jauna zen Felipe de Zeberio.

Felipe de Zeberio Zeberio Lizargarate oinetxetik zetorrela ziurtatzen zuen, eta, ez hori bakarrik, bere aita eta aitona udaleko karguetan aritu zirela ere erakutsi zuen. Hala eta guztiz ere, zenbait bizilagunek esan zuten ez zetorrela oinetxe horretatik, ez baitzuten Zeberio izeneko etxerik ezagutzen Gipuzkoan -bai, ordea, Bizkaian eta Araban-. Are gehiago, zenbait urte lehenago, Miguel de Zeberio -Feliperen aitona- Erdiko Lizargarate izeneko baserriaren jabe Miguel de Otrominekin izandako eztabaida batean, honela deitu zion: “bellaco navarro”. Otrominek berriz, Zeberiori honela deitu zion: “alaués ypurchuri, billanos en Alaua es Zeuerio o en Vizcaya o no saue donde”. Azkenik, Zeberio Lizargarateko zenbait kidek aitoren semetasuna Tolosan eta Olaberrian lortu zuten, Felipe onartu egin zuten.

Hauteskundeetan parte hartzeko beste baldintza garrantzitsua ekonomikoa zen.

Kontzeju Nagusietan hitza eta botoa eduki ahal izateko, beharrezkoa zen “recaudos bastantes” izatea, hau da, Lazkaon etxea eta lurra izatea, diru-kantitate zehatz batetik gorako balioa zutenak, noski. Beraz, baldintza honekin Lazkaoko bizitza publikoan, jabe zirenek bakarrik hartzen zuten parte.

Lazkaoko Erregimenduak bizilagunen funts-ondasunen kontrola erolden bidez eramaten zuen. Bertan, bizilagunen ondasunek beraiek zuten balioaren arabera sailkatzen ziren, eta kategoria desberdinen barruan sartzen ziren: buru bat, buru erdia, eta abar. Errolda hauei esker, batetik, gobernuan zeinek parte har zezakeen jakiten zen -bakarrik goi-mailetan zeudenak-, eta bestetik, udalaren gastuak banatzen ziren, bakoitzaren ondasunen arabera. Bazeuden balio handiko etxeak: 1548. urtean, Juan Beguiristainen etxea bi burutan baloratu zuten, Juan Alchibitiarena buru eta herenean, eta Guruzeagakoa buru batean. Gainera, noizean behin errolda hauek berritzen zituzten.

4

Lazkaoko kontzejuaren jarduera-alorrak

jarduera-alorrak

Lazkaoko udalak autogobernuko ahalmen handiak zituen herriko bizitzaren alor desberdinetan. Ordenantzak sor zitzakeen, merkataritza arau zezakeen, bere lurraldean justizia administra zezakeen, hezkuntza eta osasuna antola zitzakeen, zerga batzuk bil zitzakeen, bere diru-fondoak kudea zitzakeen.... Baina jarduera hauek guztiak Aleriako alkate nagusiak, Batzar Nagusiek edo erregeak emandako arauak murrizten zituzten.

Ondoren, Lazkaoko gobernuaren alde garrantzitsuenetakoak aztertuko ditugu, ekonomikoa eta jurisdikzionala, zehazkiago esateko.

- **Aralarreko auzo-ustiapena**

Alderdi ekonomikoei dagokienez, Lazkaok bere aztiak Aralarren aske bazka zezan arreta berezia jarri zuen. Enirio eta Aralar mendietako larreak, belarra eta ura bi komunitatek ustiatzen zituzten: Bozue Nagusikoek (Amezketan, Abaltzisketan, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrain) eta Bozue Txikiak (Lazkao, Altzaga, Arama, Ordizia, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibia).



Zeberionea etxea.

1697an Susoko Lizargarate edo Lizargarate Goikoako Zeberio etxeak "hizkera arruntean" Zeberionea Lizargarategoikoa izena ere hartzen zuen. XVII. mendean etxe honen jabeak Migel, Martin eta Felipe Zeberio Lizargarate izan ziren. Oro har, Lazkaon XVI. eta XVII. mendeetan Lizargarateko hiru etxe bereizten ziren (Susokoa, Erdikoa eta Yusokoa), baina ez zen Zeberiotarren oinetxerik. 1573. urtean Juan Zeberio izeneko batekin egingo dugu topo, Lazkaoko plazan etxe baten jabea. Etxe horren balioa buruaren seirena zen. Garai berean Lazkaon Martin Zeberio ere bizi zen, Ixurreko Maiz etxearen eta inguruko lurren jabea. Lur horietan 25 anega ere erein zitezkeen eta guztira buru bateko balioa hartzen zuten. Aurrerago, XVII. mendean, Migel Zeberio de Maiz Lazkaon erregidore izan zen 1603an eta 1631n; gainera, behin baino gehiagotan poltseroen kontuak berrikusteko kontzeju irekiak diputatu gisa ere bidali izan zuen. Haren seme Martin ere erregidore izan zen 1652. urtean, alkateorde 1653an, poltsero 1655ean eta epaimahaikide 1661ean. Felipe Zeberio, Martinen semea, poltsero izan zen 1682an eta 1687an, erregidore 1685, 1691 eta 1694an eta alkateorde 1689an.

Berant Erdi Arotik, Lazkao Bozue Txikiko kidea zen eta Aralarreko ur eta larreen ustiapienaren zazpirenaz goza zezakeen.

Hala eta guztiz ere, XV. mendetik aurrera, behin eta berriro errepikatu ziren Aralarren larrean biltzen ziren Bozue Nagusiko bi herri nagusien (Amezketako eta Abaltzisketa) eta Lazkaoren arteko liskarrak.

Liskar asko bi Bozuetako kideen artean egindako larreen banaketak sortuak izaten ziren. Horretaz gain, mendizerrako zenbait lur norbanakoenak ziren -adibidez, Amezketako jaunarenak-, eta hauek ez zuten nahi herrietako ganaduak bertan bazkatzerik.

1566. urtean Lazkaok Amezketako eta Abaltsizketako alkateen kontrako salaketa jarri zuen, 2.000 behor atzeman baitzizkioten. Korrejidorearen epaiaren arabera, Lazkaok bere ganadua Aralarren libreki bazkatzuten utz zezakeen, lur partikularrak barne, bai gauez eta bai egunez.

1570 eta 1571n, berriro ere, Lazkaok amezketarrek eta abaltsizketarrek bere ganaduak atzeman izanagatik aldeko zenbait epai lortu zituen Valladolideko Chancillerian. 1570. urtean amezketarrek eta abaltsizketarrek 66 behor eta zamari atzeman zituzten bi Bozuetako lurretan.

Noizbehinka, Lazkaok animaliak beren jabeiei bueltatzea lortzen zuen. Baina argudio juridiko konplexuak, komunitatearen eskubideak eta partikularrenak nahasten zituzten arazo hauek, hurrengo mendeetan ere errepikatu ziren.

- **Bizilagunen hornikuntza**

Lazkaoko udalak merkatal arloan ere eskumenak zituen. Kontzejuaren eginbeharretako bat herria oinarritzko gaiez horni-

tzea zen. Horretaz gain, produktuen prezioa eta kalitatea ikuskatzeaz ere arduratzen zen.

Elikagai batzuk hornitzeko ardua alokairuz edo enkante bidez, eskaintza onena egiten zuenari ematen zitzaion. 1770ean, elikagaien hornitzea bi udaletxeen alokatzearekin loturik zegoen. *Kontzeju arrunteko etxea* lau urtez alokatzen zen, eta urtean 50 dukateko errenta ordaindu behar zen. Baina alokatzen zuenak Nafarroatik ardoa ekarri eta Lazkaon saldu behar zuen; eta hori gutxi balitz, etxe hori ostatu moduan erabili behar zuen.

Era berean, *kontzeju nagusiko etxea* taberna eta ostatu moduan alokatzen zen 1770. urtean. Alokairurako baldintza Lazkao herria behi-haragiz hornitu beharra zen. Era berean, etxe hori alokatzen zuenak urtean behin, Corpus egunean, bazkari bat ordaindu behar zien ezpata-dantzari, danbor-joleari eta danbolin-joleari. Alokairuaren prezioa 70 dukatekoa zen kasu honetan. Alokairuan zeuden beste gai batzuk mistela eta pattarra ziren, baina ez zuten beti eskaintza ona izaten. Lazkao, Olaberriako biztanleei elikagaiak hornitzeaz ere arduratzen zen. Maizterrak bi kontzejuetako elikagaiak ekartzeaz arduratzen ziren, eta Lazkao produktuak bizilagun bakoitzaren beharren arabera banatzeaz arduratzen zen.

- **Udal-ogasunaren kudeaketa**

Udal-gobernuaren atribuzio nagusienerako bat kontzejuaren ogasunaren kudeaketa zen. Udala kontzejuko ondasunak administratzeaz eta diru-sarrerak eta gasuak berdintzeaz arduratzen zen.

Erregimenduko kudeaketa ekonomikoa urtero kontzejuko kontuen berraztertzearen bidez kontrolatzen zen. Horren frogagarri, XVI. mende erdialdean eta XVII.

mende hasieran egin ziren kontuen berraztertze batzuk ditugu. Urte horretako alkattea eta erregidoreak biltzen ziren, eta beraiekin batera kontzeju irekiak aukeraturako zenbait bizilagun. Guztien artean, aurreko urteko diru-sarrerak eta gastuak aztertzen zituzten. Horietaz gain, berraztertzean erregimenduko kideak zeuden, eta ikertzen zen urteko diruzainak. Honela, Lazkaoko ofizialek egin zitzaizketen botere gehiegikeriak saihestu eta zigortzen zituzten.

Udalaren diru-sarrera nagusiak Lazkaoko kontzejuak zituen ondasunak ziren: zenbait etxe, gaztainondo eta haritzetaz beteriko mendiak eta lurrak, eta abar. Gainera,

XVI. mendean kontzejuarenak ziren Apatategiko etxea eta Amiribiako errota. Bi eraikin hauek urtero errentan edo alokairuan jartzen ziren eta Lazkaoko bizilagun guztiak Amiribiako errotara joan behar zuten beren zerealak ehotzera.

1644an, Amiribiako errota uholde batzuen ondorioz erabiltezin gelditu zen. Dirudienez, Iribeko burdinolak ere kalte handiak sortu zituen errotan. Errota kontontzea oso garestia zenez, bizilagunek errota berri bat eraikitzea erabaki zuten. Hala eta guztiz ere, errota berria ez zen kontzejuarena izango, pribatua baizik. Iribe etxearekin pleitu garestiak saihesteko, Laz-



Iribe errota.

Lazkao eta Ana García de Aristizabal anderearen arteko eskritura 1644.ean izenpetu zuten. Erregeak 1646ko irailaren 28an berretsi zuen. Gastuak Ana andereak ordaindu zituen. 2000 dukat ordaintzeaz gain, ehotzeko hiru harri izango zituen errota berri bat eraikiko zuela agindu zuen. Iribe etxeak ogibidea ezagutzen zuten errotariak hartuko zituen. 2000 dukatak 1651. urtean Domingo de Arangurenak ordaindu zituen -Iribe oinetxeko jabea eta M^a Ignacia de Arramendi y Aristizabal anderearen senarra-.



kaoko herriak etxeko jabearekin -Ana Garcia de Aristizabal e Iribe andrea, Juan de Arramendiren alarguna- errota berria bere lurretan berak eraikitzea adostu zuen.

Izenpetutako akordioan, Iribe lurretan eraikiko zen errotaren gastuak ordaintzeaz Ana andrea arduratzen zen; Amiribiako egurrak, gurpilak eta beste zenbait elementu erabil zitzakeen. Baina Lazkaori 2.000 dukat (22.800 erreal) ordaindu behar zizkion ehotze-eskubideengatik.

Honen guztiaren ordainetan, Lazkaoko bizilagun guztiek Iribeko errota berrira joan beharko zuten beren gari, zekale, artatxiki eta arto-aleak ehotzera. Ehotze bakoitzeko bizilagunek eskrituran ezarritako diru-kopurua ordaindu beharko zuten. Honela, nahiz eta Lazkaon errota egon, udalak bere errenta-iturri handia galdu zuen, ezin baitzuen errota berri bat berreraiki.

Diru-sarrera eta gastuen arteko desoreka hori gaitz usua izan zen, Lazkaon bakarrik ez, Gipuzkoako gainerrako udalerrri askotan ere gertatu baitzen.

Oro har, kontzejuak beti izan zituen zorrak, baina 1759. urtetik aurrera, arazoa areagotu egin zen. Garai hartan, Lazkaoko diru-sarrerak ez ziren maisua eta kirurgilaria ordaintzeko, ez eta zubi eta bideak konpontzeko iristen. Hau gutxi balitz, urte hartan gastu berri bat sortu zen, herriko plazan erdi eroria zegoen “la casa concejil, la mayor”ren konponketarena, alegia.

Gastu hauei guztiei aurre egiteko, kontzejuak erregeari ardoaren gaineko zerga berri bat -erabakimen deritzona- jartzeko baimena eskatu zion, honela bere diru-sarrerak handitzeko. Horretarako, Erresumako Propioien eta Erabakimenen Kontularitza Orokorrari urteko diru-sarrerak eta gastuak erakutsi behar izan zizkion. Erabakimenezko lizentzia berandutu zenez, Lazkao udaletxeko eraikineko obrak egiten hasi zen 1759. urtean, korrejidorearen baimenarekin.

Handik gutxira, 1764ko irailaren 20an, ardoaren gaineko zergaren erregearen lizentzia iritsi zen. Horretaz gain, Kontularitzak Lazkaoko urteroko diru-sarreraren eta gastu orokorren zenbatekoa zehazten zuen araudi bat bidali zuen, eta bertan zerga berria sartu zuten (ikus 6. taula). Era berean, sobera zeuden 2.550 erreal koartoak kredituak ordaintzeko erabili behar zirela ere zehazten zen. Baina une hartan, Lazkaok zuen zorrik handiena ez zen kreditua eta interesak ordaintzea, jadanik bukatuta zeuden udaletxeko eraikinaren konponketa-obrak ordaintzea baizik. Zor

6. taula
Diru-sarrerak eta gastuak 1764.ean

URTEKO DIRU-SARRERAK (beilonezko errealetan)

• BEREZKOAK

- * Kontzejuaren 4 etxe
 - * Kontzejuaren gaztainondo eta mendiak:
- Guztira: beilonezko 4.398 erreal eta 14 marabedi.

• ARIELAK

- * Ardo-pitxer bakoitzeko beilonezko 8 mrb.
- Guztira: 2.200 b.e.
Diru-sarrerak guztira: 6.598 b.e. eta 17 mrb.

URTEKO GASTU IGIEZINAK (b.e.)

• SOLDATAK

- * Bi erregidore: 48 b.e.
 - * Udaleko eskribaua: 200 b.e.
 - * Lehen hezkuntzako irakaslea: 704 b.e. (+19 dukat)
 - * Zirujaua: 440 b.e.
 - * Aguazila: 100 b.e.
 - * Urbarandiako mendizaina: 300 b.e.
 - * Inchusti eta hazitegiko mendizaina: 159 b.e.
 - * Belastegiko hazitegiko mendizaina: 60 b.e.
 - * Anochoquiako hazitegiko mendizaina: 30 b.e.
 - * Imazburuko mendizaina: 27 b.e.
 - * Danborjolea eta danborra: 200 b.e.
- Guztira: 2.268 b.e.

• ERROLDAK

- * Eskolako maisuaren errukizko lanaren kontuak: 110 b.e.
 - * Ikasleen errukizko lana: 330 b.e.
 - * Kontzejuko mojen komentuari: 577 b.e. 17 mrb.
 - * San Prudentzioko basilizari: 20 b.e.
 - * Sakristau presbiteroari: 20 b.e.
- Guztira: 1.057 b.e. eta 17 mrb.

• ELIZAREN JAIETARAKO ETA BORONDATEZKO ERREMUSINAK

- * Manamenduko sermoirako erremusina: 24 b.e.

• ALDA ZITEZKEEN GASTU OHIKO ETA EZ-OHIKOAK

- * Berezkoen eta arielen etzezainaren soldata (15 milako): 98 b.e. 33 mrb.
 - * Gutun, udaleko eraikuntzak konpontzeko, bide eta galtzadak, batzarkidea, alardea, bolbora... eragindakoak: 600 b.e.
- Guztira: 698 b.e. eta 33 mrb.

Gastuak guztira: 4.048 b.e. eta 16 mrb.

Iturria:
AGG-GAO, CO LCI 3290.

horiek kitatzeko erregimenduak obren gas-
tua zehazten zuen txosten zehatz bat bidali
zuen Gortera (ikus 7. taula). Urte bete

beranduago, 1765. urtean, Carlos III.ak
lehenengo obra horrek sortutako zorrak
ordaintzeko baimena eman zuen.

7. taula

Udaletxeko konponketak, 1765 (bellonezko errealetan emanak)

Harria lantzea	10.571 b.e. 8 mrb.
Harria ekartzea	2.954 b.e. 15 mrb.
Arotza	11.000 b.e. 5 mrb.
Zoruko oholak	900 b.e.
Karea eta hondarra	2.257 b.e.
Egurra ekartzea	1.128 b.e.
Bestelakoak	2.692 b.e.
Sarrailgintza	4.678 b.e. 33 mrb.
Burnizko gurutzea	173 b.e.
Perituen txostenak	634 b.e.
Madriilen sisa eskatzeko eskubidea	861 b.e.
GUZTIRA	37.849 b.e. 27 mrb.
ORDAINDUTAKOA	11.637 b.e. 16 mrb.
ORDAINDU GABEKO ZORRAK	26.212 b.e. 11 mrb.

Iturria:

AGG-GAO, CO LCI 3290.

- **Olaberriarekin gatazkak**

Lazkaoko alkate arruntaren beste egitekoen artean, justizia administratzea zegoen. Alkatea lehen auzialdiko epailearen zen, erregeren ordezkari zelako, baina ez bakarrik Lazkaoko; Olaberriakoa ere bazen, sei urtetik bostetan gutxienez. Horretaz gain, Lazkaok ezarritako gobernu-aginduek Olaberriaren ere eragina zuten. Beraz, bi herri hauek, dokumentuek dioten bezala, jurisdikzio bakarra osatzen zuten.

Lazkao eta Olaberriaren arteko harremanak nahiko onak izan ziren garai batean, baina, XVII. mende bukaera aldera, lehen gatazka garrantzitsuak sortu ziren. 1699ko urrian, Olaberriako zenbait bizilagunek Lazkaoren kontrako salaketa jarri zuten, Lazkaok ez ziolako Olaberriak aukeratutako alkateari, Olaberriaren txanda zen garaian, aginte-makila ematen. Lazkaok ez zituen onartu Olaberriak izendatutako ofizialak, kargu publikoetan aritzeko baldintzak betetzen ez zituztelako: batek ez

zekien irakurtzen eta idazten, beste batek, diruzain izandako garaiko diru-kontuak ez zituen oraindik aurkeztu, eta beste batek ez zuen funts-ondasunik. Beraz, Lazkaoko alkatea ordenantzak betetzeaz arduratzen zen eta era berean, gerta zitezkeen ustelkeriak ekiditen zituen.

1760. urte aldera bi herrien arteko liskar berriak sortu ziren. Olaberriak elikagai guztiak bereganatu nahi zituen, eta ez hori bakarrik, ardoa saltzeko taberna bat ere izan nahi zuen. Azken batean, Olaberriak gobernu independentea nahi zuen, Lazkaotik kanpo. Hala eta guztiz ere, Lazkao Olaberriarengan zuen eraginari eusten saiatu zen, eta Gipuzkoako Diputazioari esan zion aldaketa hauek Olaberriaren kalterako zirela, eta prezioek gora egingo zutela.

Azkenik, 1802ko urrian, gatazkak areagotu ziren eta Olaberriak erregeari Lazkaotik banatzeko eta alkate arrunta aukeratzeko eskubidea eskatu zion. Erregeak Diputazioari eta korrejidoreari txosten bana eskatu zien. Bi txostenak banaketaren aldekoak izan ziren, eta Lazkaok ezin izan zuen ezer egin 1804. urtean Olaberria Lazkaotik bana ez zedin.

Eranskina
Lazkaoko etxeak (1570, 1603, 1644)

ETXEA	JABEA 1570. URTEAN		JABEA 1603. URTEAN	JABEA 1644. URTEAN
Aguirre			Miguel de Gorostegui y Mariturri	
Aguirreberria				Juan Martínez de Aguirre
Alchibitia				Andrés de Echeverría
Altuna			Miguel de Altuna	
Andraiturri Aguirre				Martín Pérez de Urtesabel
Andraiturri la menor				Martín Pérez de Urtesabel
Andrescale			Joanes de Senper	Mariana de Senpertegui
Anzuolategui			Pedro de Ibarrolaburu	
Apalategui	Julián de Apalategui	Felipe Arza	Joanes de Apalategui	Don Pedro de Chinchurreta, alcalde mayor
Apalategui Arreche			Juan Martínez Arza	
Apalategui (enfrente de Portaldegui)			Juan Martínez de Apalategui, escribano	
Apalategui la menor				Tomás de Elosegui
Arguinzano	Pedro de Sarasola de Arguinzano		Pedro de Sarasola y Magdalena de Arguinzano	Esteban de Sarasola
Arramendi	Miguel de Arramendia			Miguel Martínez de Urtezar
Astegui				Don Andrés de Iribarren, presbítero
Balbeltegui (junto a casa de Iribarren, dicha Juan García)			Joanes de Ichaso Goyena	
Beguiristain			Juan López de Beguiristain	
Butron (en Zufiricale)			Joanes de Osarizaga y Zaldibia	Francisca de Osarizaga
Domingo Catón				Madalena de Lizargarate
Echeandia			Felipe de Ercilla, escribano	Domingo de Ercilla, escribano
Eizaguirre	Felipe Arza			
Eleizpuru				Martín de Garaiburu de Zufiaurre
Emparandia				Don Andrés de Iribarren, presbítero
Ganbara				Matías de Ibarrolaburu
Gomendradi de Suso	Andrés Arza de Gomendradi (Suso?)			Pedro de Erauzquin y M ^a López de Ibarrolaburu
Gomendradi de Yuso	Juan de Gomendradi		Juan García de Gomendradi	Juan de Gomendradi
Guruzeaga	Marto de Iztueta de Guruzeaga			
Guruzeaga de Suso, alias Loperena				Jerónimo de Abaria

ETXEA	JABEA 1570. URTEAN	JABEA 1603. URTEAN	JABEA 1644. URTEAN
Ibarrolaburu	Domingo de Ibarrolaburu		Juan de Imaz de Ibarrolaburu de Yuso
Ibarrolaburu de Suso		Andrés de Lizargarate de Ibarrolaburu	Domingo de Altolaguirre
Imaz de Suso	Sebastián de Imaz (Yuso?)		Esteban de Imaz
Imaz de Yuso			Sebastián de Imaz
Iribarren	Juan del Portal, sastre		
Iribarren de Horm?		Pedro de Goia y Magdalena de Iribarren	
Iribarren de Suso		Andrés de Iribarren (Suso?)	Don Andrés de Iribarren, presbítero
Iribarren de Yuso		Juan de Echeverria (Yuso?)	Don Andrés de Iribarren, presbítero
Iturgaizaga de Suso	Joanes de Iturgaizaga (Suso?)	Martín de Imaz de Iturizaga	Martín de Maiz de Iturgaizaga, regidor
Iturgaizaga de Yuso		Juan Martínez de Murua	Martín de Zufiria de Iturgaizaga
Iztueta de Suso	Domingo de Iztueta		Don Felipe de Iztueta, presbítero sacristán
Iztueta de Yuso	Juan de Iztueta	Juan de Iztueta	Martín de Iztueta de Yuso
Juan de Ichaso, de maese			Juan López de Bidaurre
Juan Portal, de			Juan López de Ichasandi
Juan Gaiztoena	Juan Gaizto de Imaz	Juan de Aracama y María de Ercilla	Mariana de Ercilla, viuda de Juan de Aracama
Larrea	Domingo de Larrea		
Lizargarate de Medio			Iñigo de Ichasandi
Lizargarate de Medio			Gregorio de Iztueta
Lizargarate de Suso		Miguel de Zeberio de Maiz	
Lizargarate de Yuso alde Andillorena			Juan García de Murua
Maiz la mayor			Juan Martínez de Zunzunegui
Maiz de Yuso		Jerónimo de Imaz	
Maizpide o de Pedro de Izaguirre			Martín de Izaguirre
Maizpide	Joanes de Maizpide	Antonio de Maizpide	Francisca de Osarizaga
Mariategui	Joanes de Maiz de Mariategui	Domingo de Mariategui	Andrés de Echeverria
Martín de Iribarren, de			Esteban Larraza y Catalina de Goia
Mendizabal, la nueva			Pedro de Basabe
Mendizabal, casilla junto a			Gabriel Arza, el viejo
Miguel Laza, de		Joanes de Aguirre de Zufiria	

ETXEA	JABEA 1570. URTEAN	JABEA 1603. URTEAN	JABEA 1644. URTEAN
Miliategui			Marcos de Larrañaga y Águeda de Ercilla
Olacho (en Zufiricale)		Gabriel Arza, menor	
Ondarra	Andrés de Ondarra	Andrés de Ondarra	Felipe de Arizcorreta
Palacio nuevo, junto al		Lázaro de Odio y Magdalena de Iztueta y Apalategui	
Pedro Lasa, de			Domingo de Beresiartu
Portaldegui		Martín de Echeverria	
Recalde (está más arriba de Ercilla de Suso)		Juan López de Ercilla	Juan de Ercilla
Rementeria			Martín de Garaiburu de Zufiaurre
Rodrigutegui		Bartolomé de Agarista y María de Maiz de Rodrigutegui	
Rodrigutegui, enfrente de		Francisco de Ibarrolaburu	
San Prudencio, junto a la ermita de		Felipe de Ercilla, sastre	
Senper		Joanes de Chinchurreta y Senper	Juan de Chinchurreta de Senper
Ugarte, junto al río que va de Aгаunza		Martín de Lavaca	Juan de Chinchurreta de Senper
Zelaeta		Martín de Estensoro, maestro carpintero y Magdalena de Maiz	Martín de Urbizu
Zelaeta			Martín de Garaiburu de Zufiaurre
Zubiaurre	Juan de Zubiaurre		Nicolás de Zufiria, cirujano
Zufiaurre		Juan Martínez de Maiz y Domenja de Zufiaurre	Martín de Garaiburu de Zufiaurre
Zufiaurre, alias Ansotegui			Felipe de Ercilla, escribano
Zufiria Capaguindegui	Domingo de Aguirre de Zubiria (Capaguindegui?)	Domingo de Aguirre de Zufiria	Diego de Aguirre
Zufiria de Medio	Joanes de Zubiria	Joanes de Zufiria de Medio	Juan de Zufiria de Medio, regidor
Zufiria Goiena	Juan de Zubiria		Juan Martínez de Zufiria

BIBLIOGRAFIA

- AYERBE, M. R.: “Documentación medieval del Archivo Municipal de Legazpia (1290-1495)”, *Fuentes documentales medievales del País Vasco*, 60. zbk. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.
- AYERBE, M. R.: “Ordenanzas de la Alcaldía Mayor de Areria (Guipúzcoa), 1462”, *Congreso de Historia de Euskal Herria*, II. Liburukia. Donostia: Txertoa, 1988.
- GONZÁLEZ, A. *Instituciones y sociedad guipuzcoanas en los comienzos del centralismo (1680-1730)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995.
- GOROSABEL, P.: *Diccionario histórico-geográfico*. Bilbo: Gran Enciclopedia Vasca, 1972.
- GOYHENETCHE, M.: *Historia general del País Vasco. Tomo II: Evolución política e institucional entre los siglos XVI y XVIII*. Donostia: Tarttalo, 2000.
- RUIZ HOSPITAL, G.: *El gobierno de Gipuzkoa al servicio del rey y bien de sus naturales. La Diputación provincial de los fueros al liberalismo (siglos XVI-XIX)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1997.
- SORIA SESÉ, L.: *Derecho municipal guipuzcoano. (Categorías normativas y comportamientos sociales)*. Oñati: HAEE, 1992.
- TRUCHUELO, S.: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1997.

Iturri Dokumentalak

- Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, CO ECI 338, CO ECI 1821, CO ECI 3224, CO ECI 3290 eta JD IM 1/18/35.
- Donostiako Gotzaindegiko Agiritegi Historikoa, Udalerrietako Fondoak, PO37-02.
- Urretxuko Udal Agiritegia, B/1/1/8.
- Zumarragako Udal Agiritegia, B/1/1/9 eta B/1/1/11.
- Valladolideko Erret Chancilleriako Agintegia, Gizarte Pleituak, Zarandona esribana, Bukatutako Pleituak, C 742/5, L 139.
- Simancaseko Artxibo Orokorra.

